

MUGIKORTASUN PROGRAMAK-OHIKO GALDERAK

A-PRESTAKETA FASEAN

1. Egin ahal dut SICUE 9 hilabetez eta gero ERASMUS-AL-BN beste lauhileko batez gradu berean?

Printzipioz bai. Muga datza bi programetan soilik parte hartu ahal dela ikasketa ziklo bakoitzeko. Eta ERASMUS programan gehienez 12 hilabeteko iraupena izan ahal dela (bi zatitan edo batean bakarrik). Bigarren eskaera egiterakoan ez duzu lehentasuna edukiko lehen aldiz eskatzen dutenekiko.

2. Hiru hilabeteko egonaldia egiteko zer egin behar dut?

Gutxienez 15 ECTS matrikulatu behar duzu. Hautatu duzun plazaren iraupena 6 hilabetekoa baldin bada, jakinarazi behar dugu ORIn zure profilean aldatzeko. Nolanahi ere, ebaluazioaren datekin arazoak egon daitezke horrelako mugikortasun txikietan.

3. Nolakoak dira Suiza, CONAHEC eta CREPUQ deialdiak?

Beste norakoen atalean dago informazioa baina azkenek biak GAURetik kanpo egiten dira eta urtarrila aldera irekitzen dira (Iñigo González harremanetarako kontaktua da.

4. Jarduera fisiko eta kirol zientzien gradutik datorren ikaslea naiz. Sartu ditzaket Practicum ikasgaiak nire akordioan?

Gradu honetatik datozen ikasleek soilik Practicum I ikasgaia sartu dezakete haren akordioan. Gainera, hautatzen dituen unibertsitateek bermatu behar dute Practicum araudia betetzen duen ikasgaiak eskaintzen dituztela.

5. Hurrengo urtean 4. mailako gorputz hezkuntza minorra egin nahi dut. Eskatu ahal dut mugikortasun programetan parte hartzea?

Printzipioz bai. Zure eskaera prestatzean ondo aukeratu behar dituzu norako unibertsitateak, horiek bermatu behar dutelako gure gorputz hezkuntzaren minorraren eduki akademikoak beteko dituztela. Guk argitaratutako Unibertsitateei buruzko tauletan horrelako informazioa ipintzen saiatzen gara. Zalantza edukiz gero jar zaitez zure zentruko koordinatzailearekin.

6. Erasmus plazak aukeratu nahi ditut baina ez nago ziur zein den hizkuntza eskakizuna.

Erasmus plaza batzuetan derrigorrez aurkeztu behar duzu gutxieneko maila erakusten duen atzerriko hizkuntza agiri ofizialen bat. Beste batzuetan, aldiz, gomendatzen da baina ez da derrigorrezkoa. Mugikortasun plazak kontsulta egitean begira ezazu ea "min." atxikia agertzen den hizkuntza atalean

7. Hurrengo ikasturtean 4. mailako ikaslea izango naiz eta lauhileko baten mugikortasuna hautatu nahi dut. Noiz egingo nuke Practicum III?

Dakizunez, Practicum III 1. lauhilekoaren amaieran egiten da. Zuen kasuan bi aukerak dituzue:

- a) Ikasleekin batera Practicum IIIa egin eta mugikortasuna 2. lauhilekoan egin
- b) 1. lauhilekoan ikasgaiak egin kanpoan eta itzultzean, zure Practicum IIIa atzeratzea. Kasu honetan oso garrantzitsua da Practicumeko dekanordetzarekin harremanetan jartzea, eta salbuezpenezko eskaera egitea. Horrela, Practicum III atzeratzen duzuen ikasleekin talde berezia sortuko da eta data zehatz batzuetan aurrera eramango da praktikaldia.

8. Plazak aukeratzekoan, garrantzia al du lauhileko bat edo kurtso os bat hautatzeak?

Zure arrazoi pertsonal edo ekonomikoez gain, zure egonaldiaren luzera baloratzerakoan zure jatorrizko graduaren ikasketa plana eta zure mugikortasun urtean ikasgaien aurreikuspena ezagutu behar duzu (urte osoko ikasgaiak 3. eta 4. mailan eta Practicum ezberdinen egutegiak)

SICUE programari dagokionez, behin plaza onartuta hilabeteko epea duzu egonaldia laburtu edo luzatzea eskatzeko eta zure zentruko koordinatzailearen onespena behar da eskaera hauek onartzeko (ikusi C ataleko 4. galdera).

Rupo orokorreko Latino Amerika eta Beste Norakoei dagokionez, hau da, UPV/EHUko ikastegi guztiekin konpartitzen diren plazei dagokionez, oso argi eduki behar duzu eskaera fasean ze nolako iraupena izango duen zure egonaldiak, **ez baitago bermatuta** zure luzatzeko eskaera onartuko denik behin mugikortasuna hasita.

Erasmus plazei dagokionez, hasieran lauhileko mugikortasuna eskatu bazenuen, zure luzatzeko eskaera norako ikastegiak onartu beharko du. Nolanahi ere, nazioarteko mugikortasun programetako luzatzeko eskaerak behin norako ikastegian zaudela egin behar dira (ikusi B ataleko 8. galdera eta C ataleko 4. galdera).

B-PLAZA ONARTUTA BAINA JOAN BAINO LEHEN

1. Plaza eman didate eta hasi naiz akordio akademikoa prestatzen baina nire hurrengo ikasturteko ikasgaiak ez daude GAUREn ikusgai

Hori gertatu da zure ikastetxean hurrengo ikasturteko irakaskuntza eskaintza ez dagoelako grabatuta GAUREn. Kasu horietan eta epeek horrela eskatzen badute, paperean egin daiteke behin behineko akordio akademikoa. Behin irakaskuntza eskaintza grabatuta dagoenean, akordio akademiko hori grabatuko duzu zure GAUR profilatik.

2. GAUREn sartzan naiz eta ezin ditut ziurtagiriak jaitsi nire norako unibertsitatean onarpena eskatzeko

Aldatu nabigatzailez, ziurtagiriak eskuratu daitezke Firefox edo Internet Explorer nabigatzailetan eta esploratzaileak desblokeatu behar ditu pop-up lehioak.

3. Zenbat kreditu sar ditzaket nire akordioan?

Hiru hilabete (12 erts), gehienez 15-2 ikasgai

Lauhileko bat (24-30 ECTS). 4 IKASGAI (2-9 kredi+2-6 kred)

Urte oso bat (48-60 ECTS)

4. Suspenditutako ikasgaiak sar ditzaket akordioan?

ERASMUS, AL eta BN programetan ez, bakarrik ez aurkeztuan. SICUEn, suspenditutako ikasgai bat, sar daiteke.

5. Noizko egin behar dut akordio akademikoa?

Oso garrantzitsua da zuen akordio akademikoak automatrikula hasi baino lehen itxita edukitzea. Horrek esan nahi du zure zentruko koordinatzaileak onartu egin behar duela. Behin hau eginda, automatrikula egin ostean, akordioan sartu dituzuen ikasgaietan mugikortasun-ikasle gisa agertuko zarete eta berezita agertuko zarete ikasgai-zerrendetan.

Gogoratu automatrikula arrunta egin behar duzula, hau da, zuk burutu nahi dituzun ikasgai guztiak matrikulatu beharko dituzu (bai mugikortasun programan egingo dituzunak eta bai zure UPV/EHUko ikastetxean egingo dituzunak).

Nola nahi ere, fase honetan akordio akademikoa ixteak ez du esan nahi behin mugikortasuna hasita ezin duzuenik aldaketarik egin **norako ikasgaietan**. Epea azaroak 30era arte duzue. Egonaldia luzatzea aurreikusten baduzu, hobe da akordioan eragina izango duten ikasgaiak sartzeari geroago arazoak ez edukitzeko ikasgaien zerrendetan. Azkenean, ez bada luzapena ematen, zuzenduko da akordioa eta zerrendak berregingo dira.

5. Automatrikula egiterakoan, nire akordioan Practicum edo GrALa sartu baldin badut, nola egin behar da?

Ikasgai hauen kasuetan, ez dituzue matrikulatu behar uztaileko automatrikulan, hemengo ikasleei kenduko zenieketelako praktiketako plaza bat. Irailean matrikularen aldaketa egiteko eskatzea gomendatzen da, zuen Practicuma sartuz (epea urriak 15era arte duzue). GrALari dagokionez, hau ez da matrikulatzen ikasgai guztiak gaituta izan arte.

6. 4. mailako ikaslea naiz, Practicum III egin dezaket han?

Akordio akademikoa egiteko ziurtatu behar duzu Practicumeko plangintza betetzen duzula

7. Gaztelerazko lerrokoa naiz eta mugikortasuna egiten badut nola berma dezaket euskaraz egin beharreko kredituak (guztira 30)?

- 3. mailan egiten baduzu egonaldia eta lauhileko batean soilik, utz dezakezu akordiotik kanpo euskaraz ematen diren ikasgaiak (15 kreditu)
- 3. mailan egiten baduzu egonaldia urte osoz, 4. mailan 30 kreditu egin beharko dituzu euskaraz.
- 4. mailan egiten baduzu egonaldia, beharrezko kredituak bermatzeko hainbat aukera duzu:
 - Practicum III euskaraz egiteko eskatzea (talde-aldaketa eskatuz)
 - GrALa euskaraz egitea
 - Matrikularen gehipena egin eta behar dituzun kredituak euskaraz egin (gutxienezko 240 kredituez aparte)

8. Lauhileko baterako nazioarteko mugikortasuna eman didate, baina orain akordioa prestatzen ari naizela, baloratzen ari naiz urte osorako egonaldia egitea. Nola egin ahal dut eskaera?

- Lehenik eta behin, jakin behar duzu aukera duzula eskatzeko baina ez dagoela bermatuta eskaera onartzea (SICUE kasuan izan ezik), batez ere kupo orokorreko plazei dagokionez (hauek dira unibertsitate osoko ikasleekin partekatzen diren plazak).
- Bigarrenik, egonaldia luzatzeko aukera baloratzen ari bazara eta Practicuma sartu nahi baduzu akordioan, ziurtatu behar duzu bai dekanordetza honetan eta bai Practicum dekanordetzan, helmugako unibertsitateak eskaintzen dizula praktikak egiteko aukera, gure plangintzak ezartzen duen moduan.
- Hirugarrenik, luzatzeko eskaera beti egin behar da behin zure mugikortasuna hasi zarenean (SICUE kasuan izan ezik). Hau da, behin "certificate of arrival" sinatu dizutenean eta Miren Zabalarari (miren.zabala@ehu.eus) bidali ostean. Orduan, eta hango koordinatzailearen baimena jaso ostean, eskaera idatziz egin behar diguzu, guk Nazioarteko zuzendariari bidaltzeko, zeinek bere erabakiaz informatuko gaituen.

9. Hurrengo urtean 3. maila egingo dut eta lauhileko baterako nazioarteko mugikortasuna eman didate. Handik bueltatzean Practicum Iia egin beharko dut gainontzeko ikasleekin baina ez nago ziur garaiz helduko naizen. Zer egin dezaket?

Oso garrantzitsua da norako unibertsitatearen egutegi akademikoa ahalik eta lasterren jakitea. Aurreikusten baduzu zure egonaldia bukatuko dela Practicum II hasi ondoren, orduan Practicum dekanordetzan honetaz informatu behar duzu, eta salbuezpenezko eskaera egin zure praktikaldia atzeratzeko. Nola nahi ere, ezin izango duzu aukeratu zein datetan egin, zuek bezalako ikasleekin antolatzen baita talde berezia.

C-EGONALDIAN

1. Nori bidali behar dizkiot "certificate of arrival" and "certificate of attendance" dokumentuak eta aseguruaren dokumentuak?

Miren Zabalarari (miren.zabala@ehu.eus) nazioarteko programakoek

seneca@ehu.eus helbideari SICUE programakoek

2. Nire egonaldian ez badut irakasgai bat gainditzen zer gertatzen da?

Beka jasotzeko gutxienez %50 gainditu behar duzu. Norako ikasgaien deialdi guztiak erabili behar dituzu irakasgai bat gainditzeko. Hori lortu ezean, hurrengo ikasturtean matrikulatu beharko duzu zure ikastetxean.

3. Nire egonaldian zehar irakasgaiak aldatu behar badituz, aldatu dezaket akordioa?

Joan baino lehen beti dira behin behinekoak eta han aldaketak egiteko aukerak dituzue norako irakasgaietan. 1. lauhilekoan aldaketak egiteko epea azaroak 30ean bukatzen da.

4. Luzatu ahal dut nire egonaldia?

SICUE programak prozedura espezifikoa du eta jarraitu behar da mugikortasuna hasi baino lehen.

Erasmus mugikortasunari dagokionez bai, baina dirulaguntza ez da zertan luzatu eta nik baimena eman behar dizut behin ikusita proposatutakoa ados dagoela hemengo ikasketa planarekin eta norako unibertsitatekoek ere baimena eman ostean

Erasmus, Latino Amerika eta Beste Norakoak plazei dagokionez luzatzeko eskaera beti egin behar da behin zure mugikortasuna hasi zarenean. Hau da, behin "certificate of arrival" sinatu dituztenean eta Miren Zabalarari (miren.zabala@ehu.eus) edo Itziar Remirori (mirenitziar.remiro@ehu.eus) bidali ostean. Orduan, eta hango koordinatzailearen baimena jaso ostean, eskaera idatziz egin behar diguzu, guk Nazioarteko zuzendariari bidaltzeko, zeinek bere erabakiaz informatuko gaituen. Horrekin batera, zure aseguruak zure egonaldi osorako babesten zaituela ziurtatu behar diguzue. Kupo orokorreko plazei dagokionez, **ez dago bermatuta** zure luzatzeko eskaera onartuko denik behin mugikortasuna hasita.

Gogoratu behar duzu, behin luzatzeko eskaera onartu dituztenean, zure akordio akademikoa **aldatu** behar duzula ezarritako epeetan (**Azaroak 30a** 1. lauhilekorako eta **Urtarrilak 9tik Martxoak 31era**, 2. lauhilekorako). **Zure akordioa ez eguneratzeak, egonaldiaren amaieran aitortpen akademikoak ezin gauzatzea dakar.**

6. Bukatu dut egonaldia eta badakit norako unibertsitateko koordinatzaileak bidali dituela nire kalifikazioak nire zentruko koordinatzaileari. Hala ere, ez ditut nire kalifikazioak ikusterik GAUREn

Zure zentruko koordinatzaileak aitortpen akademikoak egin ahal izateko, ezinbestekoa da jasotzea "certificate of attendance" Leioako Nazioarteko Harremanetarako Bulegoan. Beraz, mugikortasuna bukatzean dokumentu hori Miren Zabalarari bidali behar diozu, hango koordinatzaileak sinatuta.

7. 3. mailako ikaslea naiz eta lauhileko baterako hartu dut mugikortasuna. Hortaz, bi edo hiru irakasgaietan ez presentziala izango naiz, ez baitut sartu nire akordio akademikoan. Nolako izango da ebaluazioa?

Oso garrantzitsua da, ez presentziala izango zaren irakasgaietan hauen irakasle arduradunekin harremanetan jartzea kurtso hasieratik. Horrek bermatuko dizu zure ebaluazio eskubidea.

8. Non aurkitu dezaket mugikortasunerako dirulaguntzei buruzko informazioa?

Dirulaguntzak Nazioarteko harremanetarako bulegoak kudeatzen ditu. Normalean beka hauek zure mugikortasunean zehar edo behin amaituta bideratu egiten dira. Informazio guztia Nazioarteko Harremanetarako web orri nagusian duzu:

<http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/dirulaguntzak>